



# 2022ko **MEMORIA**



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# 2022ko MEMORIA

## Aurkezpena 3

### 1. Azterlan kuantitatiboak 4

- KULTURA-ALORREKO ETA SORMEN-SEKTOREETAKO FINANTZAKETAREN ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTATISTIKA (2020) 4
- KULTURA-OHITUREN LUZETARAKO PANELA 4
- ORKESTRA-LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUAREKIKO LANKIDETZA 5
- IKUSIKER PANELAREKIKO LANKIDETZA 5
- AFIT-EKIKO LANKIDETZA (ANTROPOLOGIA FEMINISTA IKERKETA TALDEA) 5
- BESTELAKO ESTATISTIKAK 5

### 2. Azterlan kualitatiboak 6

- COVID-19 KRISIAREN BEHATOKIAREN ITXIERA-TXOSTENA 6
- KULTURA ETA JASANGARRITASUNA. INPLEMENTAZIORAKO GIDA 6
- KULTURA ETA OSASUNA 7
- ONDARE GARAIKIDEA 7
- EAEKO ORGANISMO AUTONOMOEN, SOZIJETATE PUBLIKOEN ETA KULTURA-ETA SORMEN-FUNDAZIOEN AZTERKETA 7
- ERALDAKETA DIGITALA 7
- TXOSTENA SEKTORE-ESKARIENTZAT IREKITA DAGO 7

### 3. Kulturklik 8

### 4. Komunikazioa 9

- WEB-ORRIA 9
- BULETINA 9
- SARE SOZIALAK 9

### 5. Beste jarduera batzuk 10

### 6. Behatokiaren lana zifratan 10



# Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak 2022ko Memoria aurkezten du. Kontuan hartu behar da 2022an berriz hasi zela jarduera, pandemiaren ondoren.

Estatistikaren eremuan, kulturako gastu publikoaren emaitzak nabarmentzen dira, bai eta, berritasun gisa, sormen-sektoreetako gastu publikoaren emaitzak ere. Datuak 2020. urtekoak dira, eta horrek aukera ematen du kuantifikatzeko krisialdiak zer-nolako berehalako eragina izan duen kulturara bideratutako aurrekontu publikoetan.

Bestalde, Behatokiak unibertsitatearekin egin dituen lankidetzak ere nabarmendu behar dira. Esparru horretan kokatzen dira Orkestrarekin, NOR taldearekin eta Antropologia Feminista Ikerketa Taldearekin (AFIT) egindako hitzarmenak. Lan egiteko bide hori ezagutza-aukera berriak irekitzen ari da Behatokiarentzat, bai aztertzen diren edukiengatik (lehiakortasuna, ikus-entzunezkoen kontsumoa, generoa), bai aldeek elkarrengandik ikasteko prozesuagatik.

Azterlan kualitatiboen ikuspegitik, lehentasun politikoaren funtsezko gaiak aztertu dira maila guztietan, hala nola jasangarritasuna, osasuna edo eraldaketa digitala ikuspuntu kulturaletik, bai eta Behatokiarentzat berriak diren beste gai batzuk ere, hala nola ondare garaikidearen analisia. Gogoratu behar da, halaber, Behatokia sektore-eskariarentzat ere irekita dagoela; izan ere, zerbitzu horrek oihartzun nabarmena izan du azken urteotan.

Kulturklien inguruko lanak eta komunikazioaren bidez Behatokiaren lana ezagutarazteko ahaleginak osatzen dute 2022an egindako lanen programa.



# 1. Azterlan kuantitatiboak

2022an, estatistikaren arloko lanaren emaitzek txosten hauek eman dituzte:

## **KULTURA-ALORREKO ETA SORMEN-SEKTOREETAKO FINANTZAKETAREN ETA GASTU PUBLIKOAREN ESTADISTIKA (2020)**

2008az geroztik, Behatokiak kultura-alarreko finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika egiten du. Bi urtez behingo eragiketa horri esker, EAEn kulturara bideratutako baliabide publikoek azken 12 urteetan izan duten bilakaera azter daiteke. Administrazio guztien gastuari buruzko informazioaz gain, EAEn kulturak duen enplegu publikoari buruzko datuak ematen ditu. Azterlanaren helburua ez da izan COVID-19aren krisiak kulturaren finantzaketan eta gastu publikoan izan duen eragina neurtzea, baina, hala ere, 2020ko datuak krisi horrek sektorean izan duen inpaktua erakusten dute. Datozen edizioetan aztertu ahal izango da kultura-sektorea nola suspertzen den eta kultura-politikek suspertze horretan nola eragiten duten.

Edizio honetan, nabarmentzekoa da estatistika sormen-sektoreetara zabaldu dela, eta horrek metodologia-erronka bat ekarri du, zaila baita honelako sektoreei egotz dakiekeen gastuari buruzko informazioa biltzea: hizkuntzaren industriak, arkitektura, publizitatea edo diseinua, eta, neurri txikiagoan, sormen-gastronomia, moda edo bideojokoak. Sektore horietako presentzia publikoa desberdina da, eta emaitzek sektore horietako gastu eta enplegu publikoaren pisua zein den ikusten laguntzen dute.

Azterketa-txostenak eta emaitzen laburpenak esteka honetan daude eskuragarri:

→ **Kultura-alarreko eta sormen-sektoreetako finantzaketa eta gastu publikoa (2020)**

## **KULTURA-OHITUREN LUZETARAKO PANELA**

Kultura-ohiturei buruzko zortzigarren panelaren landa-lana 2022ko urtarrilaren 24tik 2022ko martxoaren 1era bitartean egin zen. Horrenbestez, emaitzak 2021eko bigarren seihilekoari dagozkio. Lagina 204 pertsonaz osatuta dago, eta denek ala denek parte-hartze kulturalaren gutxieneko atalase bat gainditzen dute.

Txostenak hiru ikuspegi aztertzen ditu: ohituretan izandako aldaketak, igoera-, mantentze- edo jaitsiera-ibilbideen bitartez, parte-hartze hartzailearen, sortzailearen edo digitalaren arabera; COVIDaren osteko joerak kultura-ohituretan; eta inkestatutako pertsonen beren parte-hartze kulturala nola aldatu den azaltzeko ematen dituzten arrazoiak.

Emaitzak esteka honetan daude eskuragarri:

→ **Kultura-ohituren** panela.



## ORKESTRA-LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUAREKIKO LANKIDETZA

Behatokiak Orkestrarekin duen lankidetzaz-hitzarmenaren ondorioz, bi azterlan berri aurkeztu dira.

- **COVID-19aren inpaktua EAEko kultura- eta sormen-industrietan**
- **Euskadiko kultura- eta sormen-industrien dimentsio ekonomikoaren azterketa**

## IKUSIKER PANELAREKIKO LANKIDETZA

→ **Ikusiker panelaren** helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gazteek daukaten ikus-entzunezkoen kontsumoa eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera aztertzea. Applika+ ikerketa-proiektuaren baitan garatutako lanen barruan kokatzen da panela, eta bertan parte hartzen dute UPV/EHUko, Tabakalerako, EITBko eta Kulturaren Euskal Behatokioko lantaldeek.

## AFIT-EKIKO LANKIDETZA (ANTROPOLOGIA FEMINISTA IKERKETA TALDEA)

Esparru horretan, Behatokiaren estatistikak genero-ikuspegitik aztertzen dira, arlo horretan Behatokiaren estatistikek duten informazioa sakontzeko eta aberasteko.

## BESTELAKO ESTADISTIKAK

Behatokiaren webgunean, halaber, EAEko argitalpenen errealitatea ezagutzeko egin diren azterlanak argitaratu dira, zeinak Euskadiko Editoreen Gremioarekin koordinatuta egin baitira.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko argitalpenak - Barne-merkataritza 2021**
- **Euskarazko argitalpenak 2021**



## 2. Azterlan kualitatiboak

Kultura-politketarako garrantzitsuak diren gaietan sakontzeko egiten diren azterlanak dira. Gaien kataloga konfiguratzeko, planteamendu integral bat hartzen da, zeinak barne hartzen baititu bai alderdi sektoriala, bai bokazio publikorako politikak, behar kolektiboei eta interes orokorrari erantzuteko bideratzen direnak.

### → COVID-19 KRISIAREN BEHATOKIAREN ITXIERA-TXOSTENA

Kulturaren Euskal Behatokiak krisiaren Behatokiaren itxiera-txostena aurkezten du. → **Krisiaren Behatoki** hori COVID-19ak kultura-arlo eta -sektoreetan izan duen inpaktuaren jarraipena eta azterketa egiteko baliabidea da. Pandemia geldiarazteko aldarrikatutako neurriak luzatu egin zirenez (2022ko otsailaren 11ko Dekretuaren bidez osasun-larrialdiko egoera amaitu zen arte), atzeratu egin behar izan zen baliabide berezi horren itxiera-txostena. Txostenak 2022ko lehen hiruhilekoko emaitzak aurkezten ditu. Sektorearen egoera testatzeko erabilitako formula hau izan da: agenteak hartzen ari ziren neurriekin lotutako galderak sartzeari Behatokiaren ohiko inkestetan. Informazioa biltzeko bide horren alde egiteko bi arrazoi daude: baliabideak efizientziaz erabiltzea, batetik, eta testuinguru ziurgabe eta ezegonkor batean pandemiari buruzko galdetegiak betetzeaz nekatuta zegoen sektore batekiko kontsiderazioa, bestetik.

### → KULTURA ETA JASANGARRITASUNA. INPLEMENTAZIORAKO GIDA

Jasangarritasuna ardatz hartuta eztabaidatzen da munduko garapenaren aurrerapena, eta funtsezko gai bihurtu da estatuko zein nazioarteko agenda politikoan. Funtsezko bi helburutan oinarrituta garatzen da txostena. Lehenengoa, kulturaren eta jasangarritasunaren arteko binomioari buruzko gaiaren egoera zehaztea, kulturak ingurumen-erantzukizuna hobetzeko duen garrantzia eta sektoreak jasangarritasun-kontuengatik jaso duen eragina erakusten duten azterlanak, proposamenak eta ekimenak aztertuz. Bigarrena, gida praktikoa bat egitea, kultura-sektoreko erakundeek ekintza bideratuko duena ingurumenaren arloan garapen jasangarriko neurriak hartzea.

Helburu horiek lortzeko, dauden proposamenen berrikuspen sakona egiten da, bai nazioartean, bai estatuan eta bai autonomia-erkidegoan, eta ideia garrantzitsuenak laburbiltzen dira ekintza praktikorako gida batean, zeinak hura inplementatzeko tresna erabilgarriak biltzen baititu.

### → KULTURA ETA OSASUNA

Pandemiaren etorrerak eta mundu mailan izan zuen eragin bortitzak mundu osoko osasun-sistemetan eta osasun fisiko zein psikologikoaren babesean jarri zuen arreta. Arteak eta kultura ihesbide gisa agertu ziren, eta erakutsi zuten zer-nolako ahala eta zuzeneko eragina dituzten pertsonen osasunean eta ongizatean.



Kulturaren eta osasunaren arteko harremana ikertzen duten txosten eta lan gehienek aztertzen dituzte kulturak pertsonen osasun-egoeran dituen ondorio positiboak, prebentzio- edo tratamendu-ekintzen bidez. Txosten honetan, halaber, osasunaren eta kulturaren artean dagoen harremana ikertzearen alde egiten da, praktika eta kontsumo kulturala mugatzeko edo baldintzatzeko orduan pertsonen osasun-egoerak duen eragina aztertuz. Testuinguru horretan, azterlanak berrikuspen bibliografiko bat eta azterketa sakon bat egitea planteatzen du, eta, era berean, estatuan zein nazioartean egiten ari diren jardunbide egokiak azaltzea, zeinak etorkizuneko erabaki eta ekintzetarako inspirazio-iturri izan baitaitezke.

## ONDARE GARAIKIDEA

Ondare garaikideari buruz Kulturaren Euskal Behatokiak egin duen lehen txosten honek ikuspegi orokor batetik jorratzen ditu ondarearen arloko erronka eta definizio berriak, eta eztabaidarako ideiak zentratzen, sortzen eta ekartzen laguntzen du, bi ikuspegitatik:

- Honi buruzko gogoeta: ondare garaikidetzat zer hartzen den, ondare garaikidetzat hartzearen arazoa haren hurbiltasun historikoagatik, ondare hori kontserbatzeko dauden gomendioak, bizimodu ezberdinak erakusteko duen garrantzia, memoriarekin duen lotura, eta abar.
- Eta beste honi buruzko gogoeta: ondare garaikidearen kontserbazioa, aintzat hartuta kontserbazio-premia eta -erronka berriak, dagoeneko badauden babes-elementuak, eta etorkizuneko praktikak inspiratu ditzaketan elementu berritzaileak.

## EAEKO ORGANISMO AUTONOMOEN, SOZIJETATE PUBLIKOEN ETA KULTURA- ETA SORMEN-FUNDAZIOEN AZTERKETA

Txostenean, berariaz aipatzen dira udalak, foru aldundiak eta Gobernu ez diren organismo publikoak, zeinak 2020ko gastu publikoaren estatistikan sartzen baitira, eta arlo hauek sakon aztertzen dira: haien gastu eta enplegu osoa, administrazio-maila bakoitzaren partaidetza, haien ekarpen ekonomikoak, eta sektore, lurralde eta kapitulu ekonomikoen arabera gastua.

## ERALDAKETA DIGITALA

Kultura- eta sormen-industrien eraldaketa digitalari buruzko azterlan bat egiten ari da, ikuspegi kualitatibotik. Azterlan horrek osatu egingo du Orkestra gai horren inguruan egiten ari den analisi kuantitatiboa.

## TXOSTENA SEKTORE-ESKARIENTZAT IREKITA DAGO

Azterlan bat egiten ari da, Euskal Herriko Abesbatzen Federazioarekin lankidetzan.





## 3. Kulturklik

→ **Kulturklik** euskal kulturaren erreferentziako ataria da, Euskal Herriko kultura-eragile guztiekin partekatzen dena, haien kultura-ekitaldiak eta beste eduki interesgarri batzuk zabaltzeko. Bi atal nagusi ditu, bata orokorra, eta bestea kulturako sektore profesionalari zuzendua. Gainera, atariak, barnean, euskal kulturaren egoera aztertzeko oso datu erabilgarrien biltegi gisa funtzionatzen du.

### HOBEKUNTZAK ATARIAN

Kulturaren Euskal Behatokiak, zeina Kulturkliken eguneroko koordinazioaz arduratzen baita, hainbat hobekuntza bultzatu ditu atarian 2022an, bai kanpoko alderdiei bai datuen barne-ustiapenari eragiten dietenak.

- **Laguntzen deialdien bilatzailea:** Kulturklik PROk bilatzaile bat gehitu du, kultura-laguntzen deialdiak azkar aurkitzeko. Tresnak honako hauek biltzen ditu: tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko erakundeek deitutako dirulaguntzak, parte hartzeko deialdiak, sariak eta lehiaketak, bekak, egoitzak eta mentoretzak.
- **Adierazle berriak:** Kulturkliken kudeaketa-aplikazioan zenbait adierazle berri sartu dira antzerki-, dantza- eta musika-ekitaldien azpimotei buruzko informazioa emateko; arteen eta kultura-industriren estatistikan erabilitako azpimota berak dira, eta horri esker, Kulturkliken datuak Kulturaren Euskal Behatokiaren datuekin lerrokatu ahal izango dira.

### 2022KO DATUAK: ARGITARATUTAKO EDUKIAK ETA ERAGINA

2022an argitaratutako		2022ko eragina	
<b>OROKORRA</b>	<b>23.216</b>	<b>WEBGUNEA</b>	
Ekitaldiak	19.683	Bisitak	2.938.714
Albistek	1.664	<b>ASTEROKO BULETINA</b>	
Sorkuntzak	1.869	Bidalitakoak	52
<b>PROFESIONALA</b>	<b>1.037</b>	Harpidedunak	3.731
Argitalpenak	155	<b>SARE SOZIALETAKO JARRAITZAILEAK</b>	
Laguntzak eta dirulaguntzak	605	Twitter	8.794
Prestakuntza	277	Facebook	7.046





## 4. Komunikazioa

### → WEB-ORRIA

2022. urtean, bilatzaile bat jarri da, Kulturaren Euskal Behatokiaren web-orrian argitaratutako lanak aurkitzeko aukera ematen duena, lau bilaketa-irizpideren arabera: kultura-eremua, kultura-sektorea (eremuaren mendekoa), gaia eta gako-hitzak.

Hasierako orrian, halaber, "Behatokian zertan gabiltzan" atala gaitu da, Kulturaren Euskal Behatokian abian diren ekimenak ikusarazteko.

### → BULETINA

2022an, Kulturkaria buletina hilero bidali da, abuztukoia izan ezik, ohi bezala. Era berean, buletina birdiseinatzeari ekin zaio, eta 2023ko lehen hiruhilekoan ezartzea aurreikusi da. Kulturkariak 1.941 harpidedun ditu.

### SARE SOZIALAK

Kulturaren Euskal Behatokiak Twitter-eko kontua erabiltzen du intereseko eduki propioak zein inorenak zabaltzeko, Behatokiaren lan-eremuan (@kulturbehatokia).

## 5. Beste jarduera batzuk

### TXOSTENAK EGITEA, AHOLKULARITZA EMATEA, KONTSULTAK EBAZTEA ...

KULTUR POLITIKA ETA KUDEAKETARI BURUZKO ESPAINIAKO ETA LATINOAMERIKAKO SAREEN ETA BEHATOKIEN ARTEKO LEHEN TOPAKETAN parte hartu du Kulturaren Euskal Behatokiak.

*Administrazioa Euskaraz* aldizkariak eskatutako artikulu bat argitaratu da, izenburu honekin: → **COVID-19: eta kulturen zer?**

Lankidetzeta eta aholkularitza eskaini dira barneko gaietan, Kultura Sailburuordetzarentzat, bai eta beste administrazio, elkarte eta eragile partikular batzuen kanpo-eskaerei erantzuteko ere. asociaciones, agentes particulares...

## 6. Behatokiaren lana zifratan

### Urteko estatistika-eragiketen kopurua

2022an, informazioa sortzeko lan egiten jarraitu zen, ohi bezala, eta horrek egonkortasuna eman zien sail estatistikoei, perspektiba, trinkotasuna eta alderagarritasuna eman baitzien. Estatistika-arloan, honako estatistika-lan hauek egin dira:

- "Kultura-arloko eta sormen-sektoreetako finantzaketaren eta gastu publikoaren estatistika 2020". Zazpigarren edizioa aztertu, interpretatu eta argitaratu da.
- "Arteei eta kultura-industriei buruzko estatistika 2022": zortzigarren edizioko landa-lana egin da.
- "Sormen-industriei buruzko estatistika 2022": bigarren edizioko landa-lana egin da.



### Urteko ikerketa eta azterketa kopurua

- Ikerketa kualitatiboak: "Dantza-profesionalei buruzko inkesta", "COVID-19 krisiaren Behatokiaren itxiera-txostena", "Kultura eta jasangarritasuna", "Kultura eta osasuna" eta "EAEko organismo autonomoen, sozietate publikoen eta kultura- eta sormen-fundazioen azterketa".
- Luzetarako panela: "Kultura Ohituren eta Kontsumoaren panelari" dagokionez -204 panel-partaidek osatzen dute-, beste datu-jasotze bat egin da, zortzigarrena, eta dagozkion dokumentuak egin dira: Ohituren panelaren buletina eta datuen analisiaren txostena.
- Eustatek eta Lanbidek Euskadiko kultura-enpresa eta -kontratuei buruz emandako 2021eko datuak ustiatu dira, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuarekin batera.

### Adierazleen sisteman eguneratutako adierazleen urteko kopurua eta behatokiaren estatistika-emaitzen hartzaileen urteko kopurua

- 2022an, guztira, 162 adierazle eguneratu dira.
- Modu espezifikoan, guztira, 16 genero-adierazle eta hizkuntza-politiken 10 adierazle eguneratu dira.
- Zabalkundeari dagokionez, 2022an, behatokiaren estatistika-emaitzak 1.200 eragileri eman zitzaizkien.

